



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 9a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Noain-Elortzibarko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu behar dizkion Konstituzio Auzitegiko bi magistratu-hautagaiak hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea (15. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Noain-Elortzibarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Noain-Elortzibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldikoa Kontu Orokorra (4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (5 or.).
- V. Amaierako ondorioa (5. or.).
- VI. Finantzen egoera-orriak (6. or.).

- VI.I. Noain-Elortzibarko Udala (9. or.).
- VI.II. Patronatuen 2006ko aurrekontuen bete-tze-maila (10. or.).
- VI.III. Kultura Patronatua, 2006ko ekitaldia (11. or.).
- VI.IV. Kirol Patronatua, 2006ko ekitaldia (12. or.).
- VI.V. Musika Patronatua, 2006ko ekitaldia (13. or.).
- VII. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).
 - VII.1. Alderdi orokorrak (13. or.).
 - VII.2. Inbentarioa-lbilgetua (13. or.).
 - VII.3. Langileria (13. or.).
 - VII.4. Administrazio-kontratazioa (13. or.).
 - VII.5. Hirigintza (14. or.).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Noain-Elortzibarko Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– 2006ko Kontu Orokorren fiskalizazioa egin du.

Noain-Elortzibarko Udalak 4.789 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoeekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Langileak 2006-12-31n
Udala	8.497.271,67	9.010.420,20	49
Kirol Patronatua	242.000,77	247.556,84	-
Kultura Patronatua	351.137,11	338.358,24	-
Musika Patronatua	432.141,27	443.329,16	18

Noain-Elortzibarko udalerrriak 48,2 km²-ko azalera du.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraioak. Halaber, Noaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sartuta dago, horren bitartez gizarte zerbitzuak emateko.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.
- Urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki araubidea gaurkotzekoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituenak.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzu-ko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 3ko 38/2003 Lege Orokorra
- Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarrizko eta gainerako barne araudia.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburua agertzen da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezotasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkeztu ditugu. Seigarrenean finantzen egoera-orriaren laburpena bildu dugu, eta zazpigarrenean, azkenik, iruzkin, ondorio eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Noain-Elortzibarko Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Udalaren 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia betetzen dela Noain-Elortzibarko Udalak aurrera eramandako jardueran, 2006ko ekitaldian.

c) Noain-Elortzibarko Udalaren finantza-egoera, 2006ko abenduaren 31n.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, Noain-Elortzibarko Udalaren 2006ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu honetan sartuta daude bai udalarena bai haren erakunde autonomoena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

a) Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

b) Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera-orria.

c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen irabazien eta galeren kontua.

Esan behar da udalak ez dituela aurkeztu ez udalaren ez haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak.

Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orrian aitortutako eskubideen zenbatekoan 551.924,73 euro sartu dira, lursailen balioaren igoeraren gaineko zergari dagozkionak. Zenbateko hori errekurriturik dago; beraz, Ganbera honek ez du ezer aipatuko horri buruz.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea da 272/1998 Foru

Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate instrukzio orokorrean ezarrita dagoena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Noain-Elortzibarko Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardua, baita bere edukia ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen VI. atalean.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. BURLATAKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

a) Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dago; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa.

b) Udalak ez ditu egiten finantzen egoera-orri bateratuak.

c) 2006ko abenduaren 31n, badira aitortutako eskubideak, Garraioaren Hiriari buruzko hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagozkionak. Eskubide horiek 551.924,73 euro egiten dute eta gaur egun errekurrituta daude; hori dela eta, azkenean berreskuratu ahalko den zenbatekoa zalan-tzan dago.

Arestiko a) eta b) idatz-zatietan aipatutako salbuespenak eta c) idatz-zatian adierazitako zalan-tzaren balizko ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta

dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

IV.3.1. Udalaren finantza-egoera

Udalaren dirusarreraren behin betiko aurrekontua 13,6 milioi eurokoa da, eta gastuena, berriz, 13,5 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 67koa da, eta dirusarrerena ehuneko 62koa.

2006ko ekitaldian gora egin du gastuen bete-tearen ehunekoak, eta behera, berriz, dirusarre-renak.

Ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 43 zerga zuzen eta zeharkakoetatik dator, eta ehuneko 50 transferentzietatik.

Ekitaldiaren amaieran, aurrekontuaren emaitza doituari 410.355,71 euroko defizita ageri da. Aldiz, 2005eko ekitaldian 888.849,67 euroko superabita ageri zen.

2006ko abenduaren 31n, ekitaldi horretako eta aurreko ekitaldiko zorra 1,3 milioi eurokoa zen, eta 2006ko ekitaldian mailegu berri bat egin zen, 76.776,00 eurokoa. 2006ko abenduaren 31n, zorpetze maila 2,2koa zen, eta zorpetze muga, ehuneko 13,5koa. Aldiz, 2005ean ehuneko 0,1koa eta ehuneko 19,1koa ziren, hurrenez hurren.

2006an, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 645.243,96 eurokoa zen; 2005ean, berriz, 2.892.738,34 eurokoa.

Udalak finantza egoera ona erakusten du. Zorpetze maila urrun da oraindik bere zorpetze mugatik, baina etorkizunean hartu beharreko erabakietan kontuan izan beharko da hirigintzarekin zerikusia duten dirusarreraren beherantzko joera (EIOZ eta hirigintza aprobetxamenduak), bai eta diruzaintzako gerakinak 2006an izandako murrizketa, ekitaldi honetako likidazioan defizita ageri baitu.

IV.3.2 Erakunde autonomoen finantza-egoera

Hona hemen erakunde autonomoei buruzko datu nagusiak:

Patronatua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Aurrekontu-emaizta doitua	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina
Kirol Patronatua	247.556,84	242.000,77	8.236,04	19.792,80
Kultur Patronatua	338.358,24	351.137,11	16.438,57	40.792,41
Musika Patronatua	443.329,16	432.141,27	7.266,57	44.593,05

Patronatuetako batek ere ez du epe luzeko finantzaketarik.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Koordinazio mekanismoak eguneratu eta indartu behar dira, udaleko organo exekutiboan artean eginkizunak banatuz eta ardurak esleituz, eginiko eragiketen barne kontrola ziurtatze eta berrmatze aldera, batez ere hirigintza arloarekiko eta erakunde autonomoekiko harremanei dagokienez.*

- *Kontuan hartuta benetako autonomia maila, komenigarria litzateke aztertzea Kultura eta Kirol patronatuak udal zerbitzu bilakatzea; izan ere, ez dute langile berekirik eta kudeatzen dituzten baliabideen ehuneko 78 eta 83 baino gehiago, hurrenez hurren, udalak jarritakoak dira.*

- *Udalaren finantza-egoera aztertze aldera, beharrezkoa da udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera-orri bateratuak egitea.*

- *Ondasunen inbentarioa eguneratu behar da, kontuan hartuta lurzorua udal ondarea udalaren gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta ondare hori osatzen duten ondasunen xedea loteslea dela.*

VI. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Atal hau osatzen dute ondoko finantza egoera-orriek:

VI.I. Noain-Elortzibarko Udala:

- Udalaren 2006ko ekitaldiko gastuen eta diruzaintzaren aurrekontuaren likidazioa.

- Aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.

- Egoeraren balantzea 2006ko abenduaren 31n

VI.II. Kultura, kirol eta musika patronatuen 2006ko aurrekontuen betetze-maila.

VI.III. Kultura patronatua: aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.

VI.IV. Kirol patronatua: aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.

VI.V. Musika Patronatua: aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.

VI.I. NOAIN-ELORTZIBARKO UDALA

2006ko aurrekontuaren betetze-maila.

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratzeke dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
1. Zuzeneko zergak	2.127.799,05	0,00	2.127.799,05	2.765.387,90	%130	1.771.746,40	993.641,50	%33
2. Zeharkako zergak	2.015.530,00	0,00	2.015.530,00	836.240,58	%41	702.627,70	133.612,88	%10
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	502.082,11	0,00	502.082,11	528.078,36	%105	421.720,74	106.357,62	%6
4. Transferentzia aruntak	1.307.596,37	0,00	1.307.596,37	1.321.270,58	%101	1.275.723,14	45.547,44	%16
5. Ondare-dirusarrerak	63.028,67	0,00	63.028,67	54.077,96	%86	34.526,59	19.551,37	%1
6. Inbertsio errealen besterentzea	62.683,60	0,00	62.683,60	64.319,26	%103	64.319,26	0,00	%1
7. Kapital-transferentziak	6.344.101,61	699.584,48	7.043.686,09	2.851.121,03	%40	1.980.345,99	870.775,04	%34
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	494.579,45	494.579,45	0,00	%0	0,00	0,00	%0
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0,00	0,00	0,00	76.776,00	%0	76.776,00	0,00	%1
Dirusarrerak, guztira	12.422.821,41	1.194.163,93	13.616.985,34	8.497.271,67	%62	6.327.785,82	2.169.485,85	%100

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordaintzeke dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
1. Langileen lansariak	1.952.330,13	57.963,09	2.010.293,22	1.918.664,25	%95	1.859.619,78	59.044,47	%21
2. Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	1.664.220,56	145.110,98	1.809.331,54	1.788.917,59	%99	1.495.025,15	293.892,44	%20
3. Interesak	5.480,33	8.389,82	13.870,15	13.870,15	%100	13.870,15	0,00	%0
4. Transferentzia aruntak	1.048.995,31	13.734,51	1.062.729,82	1.055.434,67	%99	989.202,84	66.231,83	%12
6. Inbertsio errealak	5.657.208,44	1.166.827,80	6.824.036,24	3.675.088,63	%54	2.788.904,05	886.184,58	%41
7. Kapital-transferentziak	450.119,09	21.660,92	471.780,01	449.405,67	%95	112.045,85	337.359,82	%5
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	%0	0,00	0,00	%0
9. Finantza-pasiboen aldaketa	1.308.711,36	0,00	1.308.711,36	109.039,24	%8	109.039,24	0,00	%1
Gastuak, guztira	12.087.065,22	1.413.687,12	13.500.752,34	9.010.420,20	%67	7.367.707,06	1.642.713,14	%100

Aurrekontu emaitza

Kontzeptua	2006	
+ Aitorturiko eskubide garbiak	8.497.271,68	
- Aitorturiko betebeharrak	(9.010.420,20)	
AURREKONTU EMAITZA		(513.148,52)
DOITZEAK		
- Finantzazioaren desbideraketa positiboa	(344.898,54)	-
+ Finantzazioaren desbideraketa negatiboa	18.869,55	-
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	428.821,80	-
+ Merkataritzako eragiketen emaitzak	0,00	-
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		(410.355,71)

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2006	
(+) Kobratzeko dauden eskubideak		3.033.814,9
(+) Dirusarrerren aurrekontua: eguneko ekitaldia	2.169.485,86	
(+) Dirusarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	785.963,34	
(+) Kobratzeko dauden itzulketak	317,84	
(+) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	(84,29)	
(+) Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	78.132,16	
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	(581.050,87)	(581.050,87)
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak.		(2.077.849,19)
(-) Gastuen aurrekontua: eguneko ekitaldia	(1.642.713,14)	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	(265.269,59)	
(-) Ordaintzeke dauden dirusarrerren itzulketak	0,00	
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	23,79	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(169.890,25)	
(+) Diruzaintzako funts likidoak		599.777,67
(+) Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak		15.449,98
= Diruzaintzako gerakina, orotara		990.142,50
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	344.898,54	
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0,00	
Gastu orokomretarako diruzaintza-gerakina	645.243,96	

Egoeraren balantzea

AKTIBOA

Deskribapena	2006	
IBILGETUA		16.376.921,62
Ibilgetu materiala	15.693.381,54	
Ibilgetu ez-materiala	614.858,15	
Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	6.900,00	
Herri ondasunak	58.418,08	
Ibilgetu finantzarioa	3.363,85	
ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		0,00
Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	
IBILKORRA		3.551.127,96
Izakinak	0,00	
Zordunak	2.951.326,50	
Kontu finantzarioak	599.801,46	
Finantza egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00	
Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00	
		19.928.049,58

PASIBOA

Deskribapena	2006	
FUNTS BEREKIAK		16.575.306,09
Ondare eta erreserbak	10.223.844,45	
Ekitaldiaren emaitza ekonomikoak (etekina)	1.403.912,90	
Kapital-dirulaguntzak	4.947.548,74	
ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK	0	0,00
Homidurak	0,00	
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	0	1.276.448,12
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.276.448,12	
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK.	0	2.076.295,40
Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	2.076.211,11	
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	84,29	
		19.928.049,61

VI.II. PATRONATUEN 2006ko AURREKONTUEN BETETZE-MAILA

Kultura Patronatua

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	34.300,00	0,00	34.300,00	41.995,99	%122	41.995,99	0,00	%12
4. Transferentzia aruntak	305.900,00	0,00	305.900,00	309.141,12	%101	281.507,67	27.633,45	%88
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	8.000,00	8.000,00	0,00	%0	0,00	0,00	%0
Dirusarrerak, guztira	340.200,00	8.000,00	348.200,00	351.137,11	%101	323.503,66	27.633,45	%100

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
2. Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	289.700,00	4.000,00	293.700,00	288.579,91	%98	277.735,67	10.844,24	%85
4. Transferentzia aruntak	41.000,00	0,00	41.000,00	36.618,63	%89	20.931,45	15.687,18	%11
6. Inbertsio errealak	9.500,00	4.000,00	13.500,00	13.159,70	%97	12.187,83	971,87	%4
Gastuak, guztira	340.200,00	8.000,00	348.200,00	338.358,24	%97	310.854,95	27.503,29	%100

Kirol Patronatua

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	23.360,00	0,00	23.360,00	23.041,61	%99	20.236,76	2.804,85	%10
4. Transferentzia aruntak	226.586,25	0,00	226.586,25	218.953,64	%97	205.886,25	13.067,39	%90
5. Ondare-dirusarrerak	60,00	0,00	60,00	5,52	%9	5,52	0,00	%0
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	17.696,67	17.696,67	0,00	%0	0,00	0,00	%0
Dirusarrerak, guztira	250.006,25	17.696,67	267.702,92	242.000,77	90%	226.128,53	15.872,24	100%

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
2. Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	137.961,17	1.739,61	139.700,78	122.769,65	%88	112.043,36	10.726,29	%50
4. Transferentzia aruntak	105.995,08	6.000,00	111.995,08	109.933,93	%98	71.117,57	38.816,36	%44
6. Inbertsio errealak	6.050,00	9.957,06	16.007,06	14.853,26	%93	14.853,26	0,00	%6
Gastuak, guztira	250.006,25	17.696,67	267.702,92	247.556,84	%92	198.014,19	49.542,65	%100

Musika Patronatua

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	115.842,00	10.200,00	126.042,00	128.484,85	%102	127.445,85	1.039,00	%30
4. Transferentzia aruntak	300.387,32	1.918,60	302.305,92	302.981,29	%100	302.981,29	0,00	%70
5. Ondare-dirusarrerak	300,00	0,00	300,00	675,13	%225	668,99	6,14	0
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	24.891,83	24.891,83	0,00	%0	0,00	0,00	%0
Dirusarrerak, guztira	416.529,32	37.010,43	453.539,75	432.141,27	%95	431.096,13	1.045,14	100%

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	%, aitorturiko guztiaren gainekoa
1. Langileen lansariak	383.693,99	18.500,00	402.193,99	395.705,62	%98	386.132,18	9.573,44	%89
2. Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	32.335,33	973,75	33.309,08	29.661,52	%89	29.149,78	511,74	%7
4. Transferentzia aruntak	150,00	0,00	150,00	150,00	%100	150,00	0,00	%0
6. Inbertsio errealak	350,00	17.536,68	17.886,68	17.812,02	%100	6.186,14	11.625,88	%4
Gastuak, guztira	416.529,32	37.010,43	453.539,75	443.329,16	%98	421.618,10	21.711,06	100%

VI.III. KULTURA PATRONATUA, 2006ko EKITALDIA

Aurrekontu emaitza

Kontzeptua	2006
+ Aitorturiko eskubide garbiak	351.137,11
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	(338.358,24)
AURREKONTU EMAITZA	12.778,87
DOITZEAK	
- Finantzetaren desbideraketa positiboa	0,00
+ Finantzetaren desbideraketa negatiboa	0,00
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	3.659,70
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00
AURREKONTU EMAITZA DOITUA	16.438,57

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2006
+ Kobratzeko dauden eskubideak	28.383,44
+ Dirusareren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	27.633,45
+ Dirusareren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	749,99
+ Kobratzeko dauden itzulketak	0,00
- Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00
+ Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	0,00
- Bilketa zaileko eskubideak	(1.164,95)
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	(28.553,31)
- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	(27.503,29)
- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldia	(0,02)
- Ordaintzeko dauden dirusareren itzulketak	0,00
+ Aplikatzeko dauden gastuak	0,00
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	(1.050,00)
+ Diruzaintzako funts likidoak	42.127,23
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00
= Diruzaintza gerakina, guztira	40.792,41
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0,00
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	40.792,41

VI.IV. KIROL PATRONATUA, 2006ko EKITALDIA

Aurrekontu emaitza

Kontzeptua	2006
+ Aitorturiko eskubide garbiak	242.000,77
- Aitorturiko betebeharrak	(247.556,84)
AURREKONTU EMAITZA	(5.556,07)
DOITZEAK	
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	0,00
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	0,00
+Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	13.792,11
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00
AURREKONTU EMAITZA DOITUA	8.236,04

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2006
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	17.172,86
(+) Dirusarreraren aurrekontua: eguneko ekitaldia	15.872,24
(+) Dirusarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.259,32
(+) Kobratzeko dauden itzulketak	0,00
(+) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	(48,08)
(+) Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	89,38
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	(845,61)
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	(49.656,65)
(-) Gastuen aurrekontua: eguneko ekitaldia	(49.542,65)
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	(66,00)
(-) Ordaintzeke dauden dirusarreraren itzulketak	0,00
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	0,00
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(48,00)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	55.837,55
(+) Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00
= Diruzaintzako gerakina, orotara	22.508,15
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	2.715,35
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	19.792,80

VI.V. MUSIKA PATRONATUA, 2006ko EKITALDIA

Aurrekontu emaitza

Kontzeptua	2006
+ Aitorturiko eskubide garbiak	432.141,27
- Aitorturiko betebeharrak	(443.329,16)
AURREKONTU EMAITZA	(11.187,89)
DOITZEAK	
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	0,00
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	0,00
+Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	18.454,46
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00
AURREKONTU EMAITZA DOITUA	7.266,57

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2006
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	2.375,31
(+) Dirusarreraren aurrekontua: eguneko ekitaldia	1.045,14
(+) Dirusarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	695,88
(+) Kobratzeko dauden itzulketak	0,00
(+) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00
(+) Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	634,29
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	0,00
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	(34.633,29)
(-) Gastuen aurrekontua: eguneko ekitaldia	(21.711,06)
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	(41,29)
(-) Ordaintzeke dauden dirusarreraren itzulketak	0,00
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	0,00
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(12.880,94)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	76.851,03
(+) Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	0,00
= Diruzaintzako gerakina, orotara	44.593,05
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0,00
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	44.593,05

VII. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Aurrekontu orokorra onestea indarrean dagoen legeak horretarako ezarritako epean.*
- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak egitea.*
- *Musika Patronatuko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onetsi eta argitaratzea.*
- *Barne araubideari buruzko erregelamendua eguneratzea, eta horren bidez udaleko organo exekutiboan eskumenak eta erantzukizunak definitzea eta banatzea, batez ere hirigintza arloari dagokionez, eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzea.*
- *Udal arloetako kontrol eta koordinazio mekanismoak indartzea, batez ere hirigintza arloaren eta kontabilitatearen artekoak, eskubide ekonomiko bat edota betebeharrak bat sor dezakeen administrazio egintza oro behar bezala jasota gera dadin kontabilitateko egoera-orrietan.*
- *Aurreko ekitaldietako zordunei buruzko kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren eskubideak ongi ager ditzaten. Baliogabetzeak, kobratzeko ezintasuna eta kaudimen gabeziak banan-banan dokumentatu eta egiaztatu behar dira, baita formalki onetsi ere, baja eman aurretik.*

VII.2. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta ondasunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publikoak nola ondare-ondasunak eta komunalak, kontuan hartuta, halaber, ekitaldian egiten diren aldatetarako.*
- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VII.3. LANGILERIA

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Bi administrari laguntzailereren kontratazioa.
- Zerbitzu anitzetako langile baten kontratazioa.

Kontratazio horien azterketatik ondorioztatzen da araudi indarduna behar bezala bete dela.

VII.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VII.4.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Hona hemen 2006ko ekitaldian udalak aitorturiko betebeharren xehakapena:

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

Kapitulu ekonomikoak	2006an aitorturiko betebeharrak
Errentamenduak	945,65
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	479.151,50
Materiala, homidurak eta bestelakoak	1.295.650,59
Informazio aldizkaria eta dietak	13.169,85
Guztira	1.788.917,59

- Noingo eta industrialdeetako hiri-garbitzea zerbitzua emateko laguntza teknikorako kontratazioa (186.367,62 €).
- Udal eraikinen garbiketarako laguntza teknikoaren kontratazioa (124.133,42 €).
- Elortzibarko herriak lotzeko autobus zerbitzua emateko laguntza teknikoaren kontratazioa (84.596,34 €).

• Kultura etxeko atezaintza, leihatila eta aretora sartzeko zerbitzuen kontratazioa (37.090 €).

• Noain-Elortzibarko Udalaren hirigintza arloko aholkularitza emateko laguntza teknikoaren kontratazioa (25.839 €).

Espediente horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

VII.4.2. Inbertsioak

Hona hemen 2006ko ekitaldian udalak inbertsioen atalean aitorturiko betebeharren xehakapena:

Kapitulua ekonomikoak	2006an aitorturiko betebeharrak
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	1.026.320,35
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	2.509.302,20
Inbertsio ez-materialak	139.466,08
Guztira	3.675.088,63

2006ko ekitaldian eginiko esleipen hauek aztertu ditugu. Horien kontratazio-prozedura aurreko urtean hasi zen:

- Noaingo Musika Eskolaren eraikina egokitzea (1.291.212,84 €).
- Noaingo belar artifizialdun futbol zelaiko lanak, argiteria eta argiteria-dorreak (830.107,92 €).
- Artegi zaharra udal lokaletarako egokitzea (617.321,29 €).

Esleipen-espeditente horiek aztertutik, ondorioztatu dugu administrazio-kontratuei buruzko araudia modu egokian bete dela.

VII.5. HIRIGINTZA

VII.5.1. Indarrean dagoen planeamendua

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztzen baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Udalak, Osoko Bilkuraren 2006ko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, udal plan orokor berri bat egiteko laguntza teknikoaren kontratazioa esleitzea onetsi zuen. Plan hori Txosten hau egiteko unean, prestaketa-fasean dago. Gaur egun, udalak 2001eko irailaren 7ko udal plana erabiltzen du.

VII.5.2. Alderdi orokorrak

- *Antolamenduzko egitura egoki bat ezarri behar da, non kideen ardurak eta eskumenak ida-*

tziz zehazten diren, eta hirigintza-kudeaketarako eta udalarekin informazioa bideratzeko oinarrizko prozedurak ezarri behar dira.

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistro bat egin behar da, diligentziak eginda, zenbakituta eta abar, eta horietako bakoitzaren espeditenteen artxi-boa osatu behar da indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazio guztiarekin: hitzarmenak justifikatzeko oroitidazkia, perituen balorazioak, txosten teknikoak eta juridikoak, eskritura publikoak eta abar.*

VII.5.3. Lurzoruaren udal ondarea

Udalak ez dauka eratuta lurzoruaren udal ondarea eta ez du egiten hura osatzen duten ondasunen xedearen berariazko jarraipenik.

- *Lurzoruaren udal ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik.*
- *Lurzoruaren udal ondareko sarrera-irteerak erregistratu behar dira, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu behar dizkion Konstituzio Auzitegiko bi magistratu-hautagaiak hautatzea.

HAUTAGAIAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita Senatuko lehendakariaren idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu heldu den 2008ko irailaren 29ko 14:00etan bukatuko dela autonomia erkidegoetako legebiltzarrek Konstituzio Auzitegiko magistratu-hautagaiak aurkezteko epea.

Kontuan hartuta Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu beharreko Konstituzio Auzitegiko bi magistratu-hautagaiak izendatzeko arauak, zeinak Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2007ko abenduaren 10eko erabaki bidez onetsi

eta 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren, ondokoa ERABAKI DA 4. arauarekin bat:

1. Erabaki hau argitaratzen den egunetik 2008ko irailaren 22ko bederatzia eta hogeita hamar bitarte iraunen duela Konstituzio Auzitegiko magistratu-hautagaiak aurkezteko epea.

2. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldekotako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	